


# ORTLES-CEVEDALE

## ITALIAR ALPEETAN

### MENDIKO ESKIAZ GOZATUZ

Aitortu behar dut Ortles-Cevedale mendiak ezezagunak egiten zitzaizkidalda. Dena dela, Aste Santuan nora joan eztabaidatzen genbiltzala, nire oroimenaren zoko ezkutueta bi izen horien bila hasita, pare bat gauza etorri zitzaidan akordura: batetik, Luis Alejosen aspaldiko artikulu bat bazela Pyrenaican; bestetik, Stelvioko Parke Nazionalaren barruan zegoela jakiteak, Giroko txirrindularitzara eraman zuen nire burua.



Bisuts indartsuak elurra harrotzean, Punta San Matteok "buru ilhun lurruntsua" dirudi



Behin erabakia hartuta, informazioa bildu ahala, jabetzen hasi ginen. Mendi hauek ekialdeko Alpeetako multzorik garaiena osatzen dute, Esloveniatic hasita mendebalde derantz joanik, ez baitago mendi altuagorik, harik eta, Piz Berninaraino (4049 m). Altuera horren erakusle ere bada 3500 metro baino gehiagoko 15 gailur izatea, horietatik garaiena Ortler/Ortles izanik, 3905 metrokoa. Era berean, nabarmentzekoak dira glaziarren hedadura eta zenbait tontorren lerdentasuna. Kokapenari dagokionez, mendi hauek Italiako bi eskualderen tartean daude: Lonbardia eta Trentino-Alto Adigio/Südtirol. Stelvioko Parke Nazionalak Suitzarekin muga egiten du, eta Austria ere ez dauka urruti. Bere inguruan honako mendi-multzo garrantzitsu hauek ditu: Ötztal iparraldean, Silvretta ipar-mendebal-

dean, Bernina mendebaldean, Adamello-Prezanella hegoaldean, Brentako Dolomitak hego-ekialdean eta ekialde urrunean Dolomiten profil zerraz moztua.

## Eskiatzeko ezaugarri ezin hobeak eskaintzen dituzte mendi hauek

Eskiatzeko ezaugarri ezin hobeak eskaintzen dituzte mendi hauek. Batetik, altuerak elurraren kalitate ona bermatzen duelako, eta bestetik, mendi ugari oso-osorik eskiagarriak direlako. Horri guztiari gehituz gero aterpeen sare bikaina, ba horixe, mendiko eskiaz igorak nahiz zeharkaldiak egiteko oso aproposa dela esan behar da.

## MARTXOAK 29

Arratsaldeko hiruetako autobusean abiatu gara Donostiatik Loiuako aireportura. Aireportuan elkartu zaizkigu falta ziren beste bi taldekideak. A zer tankera ona hartzen diodan geure taldeari! Alai gaude denok, zeharkaldi honetarako ilusioz lepo. 18:50etan aireratu gara lehendabizi Frankfurtera joateko. Leihotik begira zer gustura Euskal Herria zerutik ikusiz, makina bat mendi eta haran identifikatuz: Anboto, Aizkorri, Izarraitz, Donostia, Donibane Lohizune eta abar luze bat. Bi ordu geroago Frankfurtera iritsi eta bizi ibili behar izan dugu hurrengo hegaldirako atera iristeko. 23:30ean Milango aireportuan lur hartu dugu, ia bakarrik gaude. Gure traste guztiak azkar hartu, zain geneukan Simoneren furgonetara igo eta ospa! Hiru bat ordu egin ditugu bidean,

### TESTU ETA ARGAZKIAK



Aitor Oiarbide Telleria

(Loiola, 1971)

Aita-amei esker bihurtu zen mendizale txiki-txikitan. Donostiako Loiolako Ametzagaina eta Gazteiz mendi taldeetako kidea da. Euskal Herriko mendi eta basoetan ikaragarri gozatzen du. Era berean, Pirinioetara sarri joan izan da, eta tarteka-marteka Alpeetara. Udan mendiko bizikleta eta alpinismoa ditu gogoko, negu-udaberrietan berriz mendiko eskian ibiltzeko irrikan izaten da. Azkenaldi honetan gainera, Ixone eta Aritz bere semearekin mendi buelta xumeen plazerra aurkitu du.

nahiz eta gidariak ziztuan eraman gaituen. Valfurvako Santa Caterina herrian hartu dugu ostatu. Aitaren batean lotan gara.

### MARTXOAK 30

Bart gaueko gidari berak, Simonek, Land-Rover zahar batean eraman gaitu Forniko aparkalekura (2178 m). Eguraldia ez da bat ere ona, lainoz zeharo itxia dago. Dena dela, aterpera iristeko ez dago galbiderik. 11:10ean abiatu gara ekialderantz haranaren hondotik igoera samurrean; aurrerago ordea, makilekin ondo adierazitako bidetik ezkerreko maldan gorantz jo dugu. Elur txikia ari du. Cesare Branca aterpera iristeko ordubete eta hoge minutu behar izan ditugu. 2493 metroko altueran gaude. Bertan bazkaldu eta gero, argituko balu, gorantz joko genuke, baina, baita zera ere! Ez da lainoa desagertu, beraz, siesta. Aterpean nor topatuko eta beste hiru euskaldun, tartean Xabi Bastida, *Su Ta Garreko gi-*

tarra jotzailea. Bere bi lagunak ere aurkeztu dizkigu: Ondarruko Iñaki eta Iruñeko Mikel. Aterpearen barruko aldea dena zurezkoa da, alegia, oso goxoa. Kanpoko eguraldi petrala ikusiz, arratsaldean gustura asko egon gara barruan gure artean berriketan.


### MARTXOAK 31: PUNTA SAN MATTEO (3678 m).

Majo gosaldu dugu. Kanpora irten eta ataritik ikusita, gaurko jomuga, gure "*buru ilhun lurruntzua*" urruti dagoela dirudi. Ikusgarria da zein harro eta lerdan azaltzen den Punta San Matteo, guri erronka botatzen balego bezala. Atzoko eguraldi txarraren ondorioz, gaur den-dena kolore zuri-zuriko izara batek estalita bezala dago. Foka-larruak eta gainontzekoak prestatu eta martxa! 8:00ak pasatxo dira. Lehendabizi, aterpe azpiko ordeka txikira jaitsi gara (2450 m). Hemendik aurrera, Palon De La Mare mendiaren magalean zeharka jarraitu dugu altuerarik galdu

### FORNIKO GLAZIARRA

Palon de la Mare (3703 m) eta Pizzo Tre-sero (3594 m) mendien arteko zirkulu erdia hartzen duen glaziar zabala da. 11,3 km<sup>2</sup>-ko azalera izanik, italiar Alpeetako bigarren glaziarrik handiena da eta haran itxurako handiena. Hiru arro glaziar elkartuz, glaziar-min-gain bakarra osatzen dute. Pasadizo moduan erantsiko dut, hiru soldadu austriarren gorpuak aurkitu zituztela 2004an izoztuta eta momifikatuta. Kontua da, I. Mundu Gerran mendi garai hauetan ere borrokan aritu zirela austriarrak eta italiarrak, Dolomitetan bezala. Diotenez, gerra lazarri hori bukatu baino pixka bat lehenagoko gertakaria da, hain zuzen ere, 1918ko irailekoa. Holaxe gertatu omen zen: Austrohungariar Inperioaren hiru soldadu horiek San Matteoko gailurra birkonkistatu asmoz, 3400 metroan zebiltzatenean italiarren granada batek jo zituen.

Ezkerretik eskuinera Cima Pasquale (3500 m), Cevedale(3700 m) eta gertuago, Palon de la Mare (3703 m) zabala. Azpian Forniko glaziarraren beheko mingaina







**lxiar eskiatzen, hori da hori estiloa!**

gabe, harik eta Forniko glaziarraren mingainera atera arte. Glaziarraren hondo-hondotik hegoalderantz segituz, erdiko morrena eta segidan plateau edo ordeka zabalean barrena jarraitu dugu igoera samurrean. Ikaragarria da aurrez aurre duguna: tontor garai menderaezinen koroa, begi-bistaren zabalera osoarekin biltzen gaituen glaziar ia amaigabea, izotz-jauziak eta gu erdi-erdian, txingurri nimiñoak mundu izoztu honen handitasunean. Izan ere, egun eguzkitsua, ederra! Zoritzen ari gara dakusagun paisajeaz: Punta San Matteo parean jakina!, Pizzo Trezero eta abar luzea. Atzean pixkanaka Gran Zebrú edo Konigspitze menditzarra azaltzen hasi da.

## **Ikusgarria da zein harro eta lerden azaltzen den Punta San Matteo**

2700 metroko altueran HM-rantz jo dugu igoera samurrean beste morrena baten bizkarretik. Gure aurretik dozena erdi kidez osatutako beste talde bat doa. Geroxeago 9:45etan, sigi-saga batzuk eginez HE-rantz jo dugu, haizeak harrotutako bat-bateko bisuts

bortitz baten erdian. Argazkiak ateratzeko parada paregabe hau ez galtzeko, eskuzorrotik eskua atera eta hortxe joan dira erretrato batzuk. Hala ere, bisutsaren hotza dela eta, eskua erdi-lelotuta geratu zait, eta gorriak ikusi ditut. 3050 metrora iristean, hemen atsedena hartu eta hamarretakoa egiteko astia hartu dugu. Segidan norantza aldatu dugu, HM-rantz berriro, hegoalderako bidea serac edo izozmendien "harresiak" ixten baitigu. 10:30ak pasatxoan 3250 metro inguruan dagoen lepo edo sorbaldara atera gara. Hementxe eskietatik kranpoietarako trantsizio zereginetan nabilela, bat-batean, motxilatik atera berri dudana poltsa eta barruko nire haize-babeserako forroa maldan behera hasi, amildu eta begi bis-tatik galdu dut: kaka zaharra!

Serac-en gainera igotzeko pasabide errazenerako kranpoiak jarri ditugu tarte labur batean. Izozmendien harresia gaintututa, 3420 metroan berriro eskien gainean abiatu gara. Parean ezkerrera M. Giumella tontortxo gurutzaduna azaldu da. Azken aldapa leuna besterik ez zaigu falta. Sekulako haize bortitza dabilen arren, agian 70 km/h inguruko haize boladak, gailurrerantz jo dugu egoskor. 12:10ean menditzar eder honen gailurrera

iritsi gara: bota irrintzia! Gainera, bertaraino eskiez heldu gara. Metalezko gurutze sendoa dauka pegatinaz josita. Ikuspegi zoragarria! Brentako mailoak, Presanella, Adamello, Adigio haran sakona eta han urrutian Dolomite-tako haitz bereziak.

12:05ean beherantz jaisten hasi gara gozatuz, nahiz eta ikaragarritzko haizeak temoso jarraitzen duen. Zalantza izan dugu ea beste nonbaitetik jaitsi-edo, ekialderago jota eta serac-ak ezker aldean utzita, baina ez, ez dugu batere argi ikusi, beraz, atzera egin behar foka-larruak baliatuz. Lehengo arrastotik jaitsi gara. Elurra ez da oso erregularra, baina ondo samar moldatu gara, aldapa batzuetan gozatua ere hartuta. Forniko glaziarraren mingainaren puntatik berriz ere, goizeko zeharkako bidea errepikatu dugu altuerarik ia galdu gabe. Horrelaxe iritsi gara aterpe azperra, hemen berriro foka-larruak ipini eta 5-10 minutuan gorantz Cesare Branca aterperaino. A zer nolako poza eta betekada gurea!

## **APIRILAK 1**

Eguraldi traketsa dela eta, ezin programatutako etapa egin, ezin igo Palon de la Mare-

## GIRO-KO BI IZEN MITIKO: STELVIO ETA GAVIA

Mendi-multzo hau Italiako Giro-a txirrindularitza lasterketan garaienak diren bi mendateen artean dago: iparraldetik Stelviok eta mendebaldetik Gaviak mugatzen dute.

**PASSO DELLO STELVIO EDO STILFSEER JOCH** 2757 metrokoa. Txirrindularien artean ospetsuak dira mendate honen ekialdeko igoraren 48 tornante delakoak, hau da, ia 180 graduko errebuelta itxiak.

**PASSO DI GAVIA** 2621 metrokoa. Gogoan iltzatuta daukat agian azken hamarkadetako etaparik epiko eta beldurgarrienaren errudun izan zela mendate hau, benetako infernua. 1988ko ekain hasierako egun hartan, Giroaren antolakuntzak jakin bazekien Gavian elurra ari zuela eta errepedea elurtuta zegoela, hala eta guztiz ere, ez zuen bertan behera utzi etapa. Okerrena jaitsiera izan omen zen, batetik, hotzagatik behatzak zurrunduta, bestetik, llantak eta zapatak izotzak estalita zeudenez, ezin zuten frenatu. Jaisten hainbestekoa zen hotza, ezen txirrindulari askok, buelta erdi eman eta igotzen hasten ziren, berotzen haste aldera. Hala, orduko txirrindulariak zailduagoak izanik ere, pott eginda errukarri iritsi ziren helmugara hipotermiak jota.

ra. Ordezko gisa, Pico Pasquale aldera abiatu gara 7:40tan. Mendebalderantz mendi eder elurtuak ikusi ditugu goizeko eguzki printzeekin. Elur hormatu zeharo gogortuan gorantz jo dugu. Laster IE-rantz jarraitu dugu Val di Rosole haraneko aldapa samurretan gora. Eguraldia ordea, txartzen ari da, lainotzen. Ikuspegi hauxe daukagu: batetik, eskuinean Palon de la Mare menditzarraren malkar tenteak eta glaziar eskegia; bestetik, ezkerrean Cima Branca hiru milako xumea eta lainoak ezkutututako Cima Pasquale. Laino artean geroz eta itsuago gabiltza, argi dago buelta eman eta egindako bidea desegin behar dugula. Eguraldiak planak aldarazi dizkigu. Hala, gaur guztiak hartu motxilan eta aterpez aldatu gara. 10:10 aldera Cesare Brancatik atera eta ordu laurden baten buruan, haranez aldatzeko bidegurutzean gaude. Hortik segidan Valle di Cedec haranean malda lasaietan igo gara Pizzini aterperaino (2706 m). Pizzini-Frattola aterpea oso toki estrategikoan kokatua dago Cedec-en haranaren buruan: bertatik sona



Gran Zebrú/König-spitze (3851 m) erraldoia, gure zaindaria bailitzan ala guri erronka bota nahian?

handiko igoerak egin daitezke esaterako Gran Zebrú eta Cevedale-ren gailurrera, eta gainera, zeharkaldietarako egoki diren hiruzpalau mendate eskura geratzen dira.

**Pizzini-Frattola aterpetik,  
Gran Zebrú eta Cevedalera  
igoera bikainak daude**

## APIRILAK 2

Berrito ere eguraldi txarra dugu. Hala ere, Cevedale lepo zabalean dagoen Casati aterpera joan eta etorri egiteko asmoari ekin diogu. Hasieran zeozer ikusten zen, 2830 m-ko altueran Casati aterpera igotzeko kableak ikusi ditugu. Aurreraxeago haitz batzuen ondoren, ezkerreko aldapan gora segitu dugu. Geroz eta laino itxiagoa



dugunez, nahiz eta aterpea urruti ez izan ez jarraitzea erabaki dugu. Ikuspen handirik gabe eskiatzen hasi gara, zertxobait gozatuz.

Arratsaldean, berriz, beste paseotxo bat eman dugu, kasu honetan Gran Zebrú-ren glaziarrera. Geroago, aterpearen goxotasunean berrikeretan eta garagarroak edanez pasa dugu denbora. Ez gara ba gu ernega-

tuko eguraldi txarra dela-eta. Halako batean, hortxe azaldu zaigu aterpearen zaindaria zurezko tramankulu arraro batekin. Zer ote da? Kuku-erlojuren bat? Baita zera ere! Alpeetako landare usaindun xehetuak *esnifatzeko* makina omen da alajaina! Eskaintzari ezin muzin egin. Hala, menda-belar eta gainerakoen hautsa kolpe batean sudur-zulotik gora nola sartu digun probatu dugu.

### APIRILAK 3: CEVEDALE (3769 m) – PASQUALE (3553 m)

Aurreko bi egunetako eguraldi traketsaren ondoren, gaur bai, gaur eguraldi zoragarria dugu. Hori dela eta, irribarretsu esnatu gara denok. 7:45etan ekin diogu ilusioz gainezka 2700 metroko altueratik. Parez-pare daukagu Gran Zebrú/Konig-spitze erraldoia, gure zaindaria balitz bezala edo guri erronka bota





**Punta San Matteo gailurreko metalezko gurutzeta, hamaikatxo ekaitz jasandakoa**

nahian. Ba ez, ez diogu erronkari helduko, bere azken aldapa tentea aurreko egunetan elurrez kargatu egin da eta. Ordu erdiz EIE-ko noranzkoan ibili ondoren, HE-rantz aldatu dugu, alegia, Vedretta di Cedec glaziarrean gora egiteko. Goi-goian ikusi dugu gaurko gailurra. Gure aurretik dabilzan beste bizpahiru taldeek arrasto ona utzi digute, beraz, *grazie mille!* Glaziarraren izotz-jauzia ezkerretik saihestu dugu sigi-sagaka malda pikoagotan. Geroxeago, berriz ere aldapa samurragoetan ibili gara eta eguzkiaren argi-printzek gaurkoz lehenengo aldiz aurpegiak laztandu dizkigute. Hamaiketako gisa barratxo bat jan eta aurrera!

10:45ak aldera Casati aterpetik datozenekin bat egin dugu. Hala, azken txanpa besterik ez zaigu falta. Berriz ere itzaletan, 3640 metro inguruan geldialdixoa, beste talde gehienak bezala zera erabakitzeke: hemendik gora kranpoiak jarri ala eskiekin jarraitu? Azken ahaleginarekin gailurreko zurezko gurutzera iritsi gara: a zer nolako poza! Berriz ere elkar besarkatzera. Lau ordu behar izan ditugu. Ikuspegi bikaina: mendebalderantz Valfur-

vako eski pistak eta urrutirago Piz Bernina, Alpeetako lehendabiziko lau milakoa ekialdetik hasita; iparraldean Gran Zebrú eta bere atzean 3905 metroko Ortles, Val Venosta (eta bere sagarrak!) eta Ötztal mendiak; ekialdean urruti Dolomitak; eta hegoaldean Brentako mailoak, Presanella eta Adamello.

12:30ean ikuspegiak majo gozatu eta gero, beherantz. Herenegun eta atzo botatako elurrrak lehengoaren gainean elur-hautsa utzi duenez, eskiatzen ikaragarri gozatu dugu. 13:40an 3250 metro inguruan gaude glaziarraren plateau edo ordearen gainean. Harrotuta gabiltza, mendi bakarra ez, bigarrena ere igo nahi dugu gaur. Zer bait jan, atzera foka-larruak ipini eta arrasto erosoan gora. 15:00etan Pasquale mendiaren lepora heldu gara, 3423 metroan. Hemendik gailurrerako bidea kranpoiekin egin dugu. 15:35etan Monte Pasqualeren gailurrean gaude. A zer nolako gozatua eskiatzen! Gure irribarrea hain da handia ezen ia ez baita sartzen belarri batetik besterako tartean. 17:20an Pizzini aterpean gara poz-pozik.

## APIRILAK 4

Berriz eguraldi goibela. Goizean Gran Zebrúko glaziarrean gora ibili gara laino itxian barrena. Bazkaldu ondoren, berriz ere Cesare Branca aterpera itzuli gara.

## APIRILAK 5: PALON DE LA MARE (3703 m).

Eguraldi onarekin animatuta jaiki gara. Gure betiko orduan abiatu gara, alegia 7:45etan. Lehendabizi altuera pixka bat galdu eta segidan H-rantz igotzen hasi gara Forniko glaziarraren alboko morrenaren gainean. 2770 metro inguruan noranzkoa zeharo aldatu behar da, IE-rantz. Begien aurrean igoerako bi kanal dauzkagu aukeran, gu ezkerretatik igo gara. 10:00ak aldera kanala bukatzean, 3000 metro pasatxoan glaziar eder bat azaldu zaigu, Palon de la Mareren HM-ko glaziarra hain zuzen ere. Lehenengo glaziarraren ordeakoa aldapa leunetan gora, eta geroago malda handiagoan sigi-sagan, altuera irabaziz oso eroso.

## Forniko glaziarraren alboko morrenaren gainean ibili gara

11:30ak pasata gailurra ikusi dugu gaur es-treinako aldiz. Glaziarraren goiko plateau edo ordekan barrena HE-rantz abiatu gara. Alpeak %100ean bizitzan ari gara, eguraldi bikaina dugu mendi erraldoi honetan gora segitzeko. 12:30ean Palon de la Mareren HM-ko bizkarrera iritsi gara. Bizkar honetako haitzak ez dira eragozpen handia eskize gailurreraino jarraitzeko.

Menditzar honen gailurrera heldu gara 13:05ean. Pozez txoratzen berriro. Ikurrina atera eta argazki mordoa atera diogu elkarri. A! eta jakina, besarkadak! Talde kariñoso samara baikara. Berriz ere bezperako eguraldi txarrak elur geruza gustagarria utzi digu, hortaz, jaitsiera zoragarria, tarteka plazerrez garrasika. Ahal zela, inork zanpatu gabeko "elur birjineko" aldapak aukeratu ditugu. 15:15etan iritsi gara aterpera, beraz, ordu eta erdian jaitsi gara, igotzen ordea bost ordu eta laurden behar izan ditugu. Eguzkitan birra batzuk hartuz ospatu dugu gaurko balentria. Beste ordu erdi batean Cesare Branca aterpetik Forniko aterpera (2178 m) jaitsi gara. Zaharkituta dagoen aterpe honek badirudi bizi izan dituela garai hobeak, dena dela, zer da, aterpea ala hotela?

**Cevedalaren gailurrean (3769 m): a zer nolako poza!**

## APIRILAK 6: PIZZO TRESERO (3594 m).

Azken egun honetan mendirik programatu-ta ez zegoen arren, hain eguraldi ona ikusita, Alpeetako ordu hondar hauei txirbilak atera nahi dizkiegu. 8:30ean irten gara aterpetik, berandutxo. Hogei minutu geroago fokeatzen hasteko prest gaude. Hodei bakar bat ere ez dugu ikusten, gauza kezagarri bakarra gailur garaietan bisutsa harrotzen duen haize zakarra da. Behinola Forniko glaziar luzeagoak higatutako haranaren hondotik gabiltza xuabe-xuabe. 2360 metro inguruan, haran nagusia utzi eta eskuineko Canalino Isola Persa izeneko sakonari ekin diogu. Canalino tubo nabarmena begiz jota geneukan aurreko egunetan, Cesare Branca aterpearen parean dago eta. Sakonean gora metroak azkarrago igo ditugu. Canalinoa bukatzean, tarte zabalago baten ondoren, berriro ere bigarren sakon batean gora sartu gara.

11:15etan sakonetik irten eta Treserotik jaisten den glaziarrera atera gara, 3000 metro inguruan. Hemendik aurrerako noranzkoa M-rantz izan da, glaziar zabalaren malda samurretan gora jarraitu dugu, hari eta San Giacomo eta Tresero tontorren arteko lepora iritsi garen arte. 3200 metroan zerbait jan eta atsedena pixka bat hartu eta gero, Treseroren azken aldapa pikoari ekin diogu. Itzaletan gabiltza eta haize zakarrak gogortu egin du elu-

## BITXIKERIA BAT: "BAITA"

Zeharo deigarria egin zitzaidan mapan "Baita del Pastore" eta "Hotel La Baita" bezalako izenak topatzea. Irakurri bezain pronto, bat-batean Lapurdiko etxe asko izendatzeko moduarekin lotu nuen, esaterako, "Domingo-baita" bezalakoekin. Kontua da, ez direla bizpahiru bakarrik, Valfurva haranean hain dira ugari, ezen mapan "B.ta" moduan laburtzen duten. Interneten italiararen hiztegi batean kontsultatuta, Alpeetako mendiko etxe isolatua esan nahi omen du.

rra gure ibilia zailduz; gainera, sekulako hotz sentsazioa daukagu. Egoera honetan 3500 metro inguruan, nahiz eta gailurra hurbil samar eta ehun metroko desnibela besterik falta ez izan, buelta ematea erabaki dugu. Bestalde, denboraz ere berandu gabiltza. Jaitsiera luzea gogotik gozatu dugu, lehendabizi glaziar zaballean eta segidan lehen aipatutako bi sakon estuetan barrena. 14:40tan Forniko aterpearen aparkalekuan gara. Telebistako programa hartan kantatzen zutena gogoratu eta kantatu dugu tristeziarik gabe: *Bukatu da, bukatu da, bukatu da, akabo!*

## FITXA TEKNIKOA

### ANTOLAKUNTZA

"Mendiak eta Herriak" enpresak eta Julen Reketa mendiko gida profesionalak antolatuta.

### INFORMAZIO-ITURRIAK

\* Luis Alejos. **Macizo de Ortles-Cevedale**. Pyrenaica 143. zkia., 1986.

\* Oriol Guasch. **Alpes en esquís**. 57.-74. orr. Desnivel ediciones, 2000.

\* Eraldo Meraldi mendiko gidariaren azalpen zehatzak: <http://www.rifugiobranca.it/inverno>

### KARTOGRAFIA

\* Ortles-Cevedale/Ortlergebiet 08, 1:25.000. [www.tabaccoeditrice.com](http://www.tabaccoeditrice.com)

\* Tyrol-Dolomites-Panorama road map, 1:450.000. [www.freytag&bernt.com](http://www.freytag&bernt.com)

### PARTAIDEAK

Xabier Etxeberria, Itziar González, Larratiz González, Sergio Martín, Jon Totorika, Julen Reketa gidaria eta ni neu.

